

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguena / 2002ko urriaren 31 / 515. zenbakia



**ZERGAK %4 GORA DATORREN URTEAN**

**SALBUESPENAK ERE BADIRA: URA, ESATE BATERAKO, %11,67 IGOKO DA**

**ESKUBALOIA: SENIOR MUTILEK, LEHEN PUNTUA/9 • MUSIKA: MONTIJOKO ABESBATZA SAN PEDRON/10**



## Euskalduna

### Hileta Zerbitzuak

- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak - eskelak

Amilaga, 39 • 20570 BERGARA  
Tel.: 943 761 299 • Faxa: 943 761 299  
e-mail.: euskalduna@harrespil.net




## Harrespil

### Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 • 20004 DONOSTIA  
Tel.: 943 894 940 • Faxa: 943 894 941  
e-mail.: harrespil@harrespil.net

# Gida Komertziala 2003, abian!

## Aurten, berritasunez beteta

- Zerbitzu gehiago...
- Diseinu berria...
- Publizitate aukera handiagoak...

2003. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara.  
Laster pasatuko gara zure denda, enpresa edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Eider Lete** publizista izango da zurean.



Eider Lete


**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

INFORMAZIO GEHIAGO: 943 76 92 71 edo 943 71 23 91

# ATREBENTZIA EZPADA / Osasuna nahikua zaintzen dogu? Juten zara errebisiñuak egittera?



**ELISABET ALBERDI**  
37 urte



**ASIER MAURE**  
30 urte



**MARIA LUISA LETURIONDO**  
58 urte



**SABINA JIMÉNEZ**  
65 urte



**JESUS ARRIARAN**  
53 urte



**VICENTE CAMACHO**  
84 urte

Saiatzen naiz osasuna zaintzen. Medikuairenera gaixorik nagonian bakarrik juten naiz, biharra dagonian; baiña, bueno, ez naiz askotan gaixotzen; osasuna daukadan seinale.

Ahalegiñak egiten ditud osasuna zaintzeko. Medikuairenera, normalian, gaixorik nagonian juten naiz. Eta zaintzeko, ba, kirola egiten dot, batez be, eta gehiegikerixarik ez.


Saiatzen naiz osasuna zaintzen. Medikuairenera be errebisiñuak tokatzen die nian juten naiz, ez bakarrik gaixorik nagonian. Hankak dauzkat gaizkixen; batez be, horreik zaintzen ditud.

Orokorrian ez dot uste gehixegi zaintzen danik. Neu be saiatu saiatzen naiz, baiña ez dot zaintzen bihar beste. Medikuairenera ez naiz sarriegi juten, biharrezkua danian bakarrik.

Ez dot askorik zaintzen, gehixago zaintzia komeni, baiña badakizu ze pasatzen dan, errezerara egiten dogula. Medikuairenera errebisiñua egittera juten naiz, tentsiñua altu daukat-eta.

Zaintzen dot; saiatzen naizela uste dot, behintzat. Medikuairenera be aldian-aldian juten naiz, ez bakarrik biharra daukadanian. Larogeitik gora urte daukat, eta ondo nago.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK BAZEN ORDUA** Azkenean konpondu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Torrekua pareko zubia. Dilatazio-junturak egoera kaskarrean zeudela-eta, denbora luzez egon da sekulako zuloekin. Azkenean, konpondu dute; asteburuetan, gainera, enbarazu txikiagoa egiteko. Baina badirudi aurrekontu txikiarekin ibili direla, zubitik bi metrora bidegurutzte erdian dauden zuloetara ez dira heldu-eta. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 6

**2003ko Udaltasak**

Joan den astean onartu zituen udalbatzak 2003ko ordenantza fiskalak. Oro har, %4 igoko dira zergak.

KIROLAK / 9

**Lehen puntua 5. partiduan**

Senior mutilen eskubaloï taldeak lehen puntua lortu zuen zapatuan, Ereintzaren aurka (24-24).

KULTURA / 10

**Montijoko Abesbatza**

Montijoko Abesbatzak (Badajoz) emanaldia egingo du zapatuan 20:00etan, San Pedro parrokian.

## ASTEKODATUA

# 1

### LITRO BAT EURI JASO DA BERGARAN ORAINGO ASTEAN

Temperatura epelak izan ditugu egunotan. Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera, m<sup>3</sup>ko litro bat euri besterik ez da jaso Bergaran urriaren 23tik 28ra. Hego haizea izan da nagusi.

## BESTEKEESANA

**Lapurdiko hiriburura Tourra iritsi zen azkeneko aldia 1972ko uztailaren 7a izan zen. Bordeletik ateraginen. Saioa oso laua izan zen, lasaia; eta azkenean tropelean iritsi ginen helmugara. Leo Duyndam holandarrak irabazi zuen saioa. Orain bezala, jende asko joaten zen Tourra ikustera. Proporzioan, egun baino gehiago, gutxiak baitzuten autoa, eta bideak oso txarrak baitziren. Urte horretan atsedean egun egin genuen hemen eta jende asko bildu zen. (...)** Gaur egun, lasterketak aukeratu egiten dira. Lehen, itzuli ia guztiak korritzen genituen, eta denak irabazteko asmoarekin. Egun, txirrindulari batzuek klasikoak korritzen dituzte, eta beste batzuek Itzuliak.

**JESUS ARANZABAL / Txirrindulari ohia 'Euskaldunon Egunkaria' / 02-10-25**

## BERAIEK DIÑOE / Aitziber Azkondo



### Bidegabekeria itzela Bergaran

**I**ritzitatu artikuluak idazteko tartea dugu honakoa. Era berean, eta hainbatek egiten duten bezalaxe, egoerak, ideologiak, bidegabekeriak, e.a. salatzekeo tartea. Badaezpada hauxe aurreratu nahi izan dut. Bide horretatik noa bai. Zerbait salatzekeo asmoz nabill!

Guztiok ikusi dugu urtetan zehar Bergarak jasan duen aldaketa, eta, egia esan, itxuroso dago. Herri polita da. Lorategi berriak, ordainezinak diren etxebizitzak, ibilbide berriak, alde zahar eraberritua, bisitariak gusturen hartzen duen aldea, hain zuzen, parkinga ere egin zuten. Ziurtasun handirik gabe, pentsatzen dut beste hainbat proiektu izango direla udaltxeko artxiboetan. Nire galdera eta salaketa honakoa da: zer gertatzen da Bergarako auzoekin? Nik neuk neure kasuaren inguruan bakarrik hitz egin dezaket, beste hainbat bizilaguni bezala izugarri eta ezkorki eragin didalako. Ez dakit ziur

zenbat urte izango diren, baina ni jaiotzenetik Zubiaurre eta Martoko auzoek ez dute inolako berrikuntzarik izan. Udala gidatzen duten batzuen (alkate jaunetik hasita) jaiogune izan arren, badirudi ez duela inongo interesik. Argi dago ez dagoela lehenastunaren artean.

**"Erdigunetik urrun bizi garenoi, baliabideak jarri beharrean, eragozpenak baino ez"**

Ez al ditugu guk ere udaletxeko soldatak ordaintzen? Gazte asko bueltatu behar izan gara auzora, etxebizitza izatea giza eskubide bat izan baino areago, luxua bilakatu baita. Horrela, eta han zenbat lagun bizi garen jakinda,

eragozpenak besterik ez. Une honetan arazo gehien sortzen diguna, autoa non utzi. Bide estua da Ozaeta jauregitik hasi eta Martoko lotzen duena, eta auto ugari zeharkatzen du eguerdi eta arratsalde partean. Eragozpenak ekiditeko, Udalaren erantzuna, auzokideek autoak uzteko tokia murriztu. Erdigunetik urrun bizi garenoi baliabideak jarri beharrean, eragozpenak... Nola ez gara herriko agintariez harro egongo!

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Inaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre,  
Maitane Arizabaleta,  
Juan Martin Elexpuru,  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

### GUARDIAKOFARMAZIAK

**EGUBAKOITZA, 1**  
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15

**ZAPATUA, 2**  
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74

**DOMEKA, 3**  
CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74

**ASTELEHENA, 4**  
PUY, Barrenkalea 25... 943 76 16 87

**MARTITZENA, 5**  
GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05

**EGUAZTENA, 6**  
ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63

**EGUENA, 7**  
MOZOS, San Pedro 4... 943 76 12 15

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Anbulatorioa (txanda) ... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa ... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa ... 943 76 62 46

Ertzaintza ... 943 76 53 40

Osasun etxea ... 943 76 24 40

Asepeyo ... 943 76 16 43

Pakea ... 943 76 13 49

Angiozarko medikua ... 943 78 90 27

Antzuolako medikua ... 943 76 62 23

Odol emaeleak ... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak ... 943 76 51 06

**GARRIAK**

Taxiak ... 943 76 19 50

**UDALA**

Bergarako Udaletxea ... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea ... 943 76 62 46

Udal Artxiboa ... 943 77 91 32

Igerilekuak ... 943 76 20 51

Kultura etxea ... 943 77 91 58

Liburutegia ... 943 77 91 62

Kiroldegia ... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza ... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

Epaitegia ... 943 76 14 92

Erregistroa ... 943 76 13 15

Jardun ... 943 76 36 61

Idolaz ... 943 76 65 08

Erretiratuaren etxea, Bergara ... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuaren elk. ... 943 76 62 71

Postetxea ... 943 76 26 85

Bedelkar ... 943 76 04 68

Akulu AEK ... 943 76 05 18

Udal Euskaltegia ... 943 76 44 53

Bergarako notariatza ... 943 76 10 73

### MEZAK

<b>San Pedro</b>	<b>Labegarieta</b>
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	<b>San Lorentzo</b>
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	Zapatuak:
<b>Sierbak</b>	20:00.
Lanegunak: 19:15.	<b>Angiozar</b>
Zapatuak: 19:00.	Domekak:
Domekak: 11:30, 13:00.	11:30.
<b>Osintxu</b>	<b>Moja</b>
Domekak: 12:30.	<b>Zaharrak</b>
Zapatuak: 19:00.	Lanegunak: 9:00.
<b>Elosu</b>	Zapatuak: 11:00.
Domekak: 10:30.	<b>Mizpirualde</b>
<b>Ubera</b>	Lanegunak: 11:45.
Domekak:	Zapatuak: 17:30.
10:30.	<b>Antzuola</b>
<b>San Juan</b>	Domekak:
Domekak: 11:00.	09:00, 11:30.
<b>Elorregi</b>	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Domekak: 10:30.	<b>Uzarraga</b>
	Domekak: 10:00.

### URTE-MEZAK

**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

### OHARRAK

#### 1951N JAIOTAKOAK

1951n jaiotakoaren afaria azaroaren 9an Azpeitxi jaiatzean. Izenematea (30 euro), Euskadiko Kutxan.

#### 1953AN JAIOTAKOAK

1953an jaiotakoaren afaria azaroaren 16an Txarrantxa jaiatzean, 21:30ean. Aurretik, 21:15ean, taldeko argazkia aterako dute eta afalostean dantzaldia izango da. Izenematea (15 euroko depositua), Txarrantxan, Kiñun edo Irizar kaleko ONCEko kioskoan.

#### 1934AN JAIOTAKOAK

1934an jaiotakoaren (1955eko kiñtoen) bazkaria azaroaren 23an Torrekua jaiatzean, 14:45ean. Aurretik, 14:00etan, taldeko argazkia aterako dute. Bazkarirako txartelak (12 euroko depositua), Torrekuan bertan.

#### 1933AN JAIOTAKOAK

1933an jaiotakoaren bazkaria azaroaren 24an Torrekua jaiatzean, 14:30ean. Aurretik meza izango da, Sierbetan, 13:00etan. Izenematea (6 euroko depositua), Torrekuan edo Intxortan.

#### ODOL ATERATZEA

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, azaroaren 6an, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

### JARDUNENAGENDA

#### JARDUNEKO BULEGOA, ERROTALDEN

Aurreko asteke alean, akats bategatik, Jardun euskara elkartearen bulegoa Irizar jauregian dagoela jarri genuen. Jakingo duzue, Jardunek Errotalden, kultura etxean, dauka bulegoa. Edozein argibide, Errotalden bertan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 telefono zenbakietan.

### URBANOENORDUTEGIA

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**GERALEKUAK:** San Juan (Torrunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatxoan) eta Zabala jaietxea.

**Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


## Barrenkaleko 19 etxebizitza berritzeko lanak, abian

Diputazioaren *Hiri guneen berrizketa* programaren barruan, Barrenkaleko 19 etxebizitzatako fatxadak berritzeko lanak abian jarri ziren 1992ko urriaren. Lanok Udaleko Hirigintza batzordeak zuzendu zituen, Suradesa berriztapenerako elkartearen laguntzarekin.



### BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

#### “Eztegu”



Ezteiak. Ezkontza eta ondoko ospakizunak. *-Lehe, ezteguak iru egun irauten zeben.*  
Pluralean ia beti.

GORKA ORTEGA

### HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 28 **7°C**

MAXIMOA Astelehena, 28 **26°C**

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) **1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	19°C	11°C	— l/m <sup>2</sup>
Eguena, 24	19°C	7°C	0,7 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 25	25°C	12°C	— l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 26	25°C	9°C	— l/m <sup>2</sup>
Domeka, 27	20°C	10°C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 28	26°C	7°C	— l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

### ASTEKO FILMAK

#### ‘MINORITY REPORT’

ZUZENDARIA: STEVEN SPIELBERG. AKTOREAK: TOM CRUISE, COLIN FARRELL.

**HARIA.** Washington, 2054. urtea. *John Anderton* unitate berezi bateko polizia bat da, hilketak eta lapurretak gertatu baino lehen gaizkileak atxilotzen dituen. Baina sistema ez da uste bezain perfektua.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean eta zapatuan, 19:30 eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNUAZIOA: ●●●●●

#### ‘SPIRIT: EL CORCEL INDOMABLE’

ZUZENDARIAK: KELLY ASHBURY ETA LORNA COOK.

**HARIA.** Kelly Ashbury eta Lorna Cookek zuzendutako drama epikoa. Mendebalde Urruneko zaldi bizkor baten abentura arriskuak kontatzen ditu. Lehor-armadako koronel batek harri-patu egingo du, baina indiar batek askatu egingo du. Marrazki bizidunak.

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

#### ‘SMOKING ROOM’

ZUZENDARIAK: JULIO WALLOVITS ETA ROGER GUAL. AKTOREAK: EDUARD FERNANDEZ, JUAN DIEGO, CHETE LARA.

**HARIA.** Komedia honek harrera beroa izan zuen kritikaren paritetik. Erretzeko debekua delata eta, enpresa baten eztabaida bizia sortuko da langileen artean. Hainbat langilek zuzendaritzak hartutako erabakiaren kontra sinadurak biltzeari ekingo diote, baina oztipoak izango dituzte.

**TOKIA ETA ORDUA.** Zinekluba. Eguztanean, azaroaren 7an, 20:00etan.

PUNUAZIOA: ●●●●●

## IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79

## Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa Moksetak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



# GOITBren ordua!

Orain, ordutegi zabalagoa.

**13:30etik 16:30era**

Albistegiak, sukaldaritza...

**19:30etik 23:30era**

Albistegiak, kirola, musika, bidaiak...

**Asteburuetan 13:30etik 17:30era**

Saio onenak berriz ikusteko aukera.

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikusiko  
duzu!*

**UDAL ZERGAK/** Salbuespenen artean, urak %11,67ko igoera izango du eta etxez etxeko zerbitzuak, berriz, %38,73koa

# Udalak eskaintzen dituen zerbitzuengatik %4 gehiago ordainduko dugu 2003. urtean

MONIKA BELASTEGI

Joan den eguaztenean onartu zuen Udaltzako datoren urterako ordenantza fiskala. Horrela, 2003an, %4ko igoera izango dute, orokorrean, Udalarik ordaintzen dizkiogun zergek. Eta badira igoera handiagoa izango dutenak: ura eta kanposantua, esaterako.

2003ko ordenantza fiskalen zergak ezartzeko orduan eta horien igoera erabakitzeke orduan, Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) igoera hartu dute kontuan udal arduradunek. Hau da, iazko irailetik aurtengo irailera KPIk izan duen %4ko igoera. Eta horixe da ordenantza fiskalen zergak ezartzeko Udalean erabili duten erreferentzia. Hala ere, ez diete Udaleko zerbitzu guztiei igoera berbera aplikatuko: batzuek igoera handiagoa izango dute; eta beste batzuek berdin jarraituko dute.

Ordenantza fiskalak joan den eguaztenean onartu zituen udaltzako, EAJ-EA eta Sozialista Abertzaleak taldeen oniritziarekin. Alderdi sozialistak, bestalde, ezezkua eman zien ordenantzei, Mizpirualdeko zergak %4 igotzea gehiegi iruditzen zaiolako.

## ZERBITZU BATZUK %4TIK GORA

Kanposantua, ura eta etxez etxeko zerbitzua dira %4a gainditzen dutenak. Hilerriaren kasuan, tarifek %8 egingo dute gora. Igoeraren arrazoia da zerbitzu defizitariotza izatea. Izan ere, Udalak hilerriko zergekin jasotzen duenarekin zerbitzuaren erdia bakarrik finantzatu du. Hala ere, nitxoak salbuespena izango da: %8 igo beharrean, %4ko igoera izango du, gainerako lurperatzeekin bateratzeko helburuarekin.

• Etxez etxeko zerbitzuak %38,73 egingo du gora. Igoera horrek diru sarrera handiagoa duten 25 lagun ingururi eragingo die. Gainerakoengan, batez beste, %17koa izango da igoera, eta diru sarrera txikiena dutenen kasuan ez da igoerarik izango.

Urari dagokionez, igoera %11,67koa izango da. Alkatearen esanetan, arrazoia da Gipuzkoako Ur Partzuergoak altako uraren prezioa igo egin duela, eta koste horiei aurre egiteko igo dutela uraren prezioa. Bestalde, ur kontsumoaren beherakadak ere igo du uraren prezioa.

Horren haritik, Sozialista Abertzaleek eskatu zuten azterketa egitea jakiteko ur zerbitzuak Udalaren eskuetan jarraitu izan balu igoera hori gertatuko zatekeen edo ez. Bestalde, kontraesana iruditzen zaie gizartean uraren kontsumoa zaintzeko mezua zabaltzea eta kontsumoa txikitzeagatik prezioak igotzea.

Igoerarik izango ez duten hainbat zerbitzu ere badira: estolderia, Gizarte Zerbitzuen ikastaroak eta txakurtegia.



Mizpirualde egoitzako zerbitzuak igoera arrunta izango du, %4koa, hain justu ere.

## Ura eta zaborra

Hiru hilabeteen behingo datuak	2002	Igoera	2003
<b>Mantenimendua</b>	2,28 €	%11,67	<b>2,55 € / 374 pta</b>
<b>Estolderia (m<sup>3</sup> bakoitzeko)</b>	0,17 €	%0	<b>0,17 € / 28 pta</b>
<b>Ura (m<sup>3</sup> bakoitzeko)</b>	0,52 €	%11,67	<b>0,58 € / 96 pta</b>
<b>BEZ</b>	1,83 €	%10,93	<b>2,03 € / 337 pta</b>
<b>Zaborra</b>	10,20 €	%4	<b>10,60 € / 1.763 pta</b>
<b>GUZTIRA (minimoa)</b>	41,91 €	%7,81	<b>45,18 € / 7.517 pta</b>

## Turismoen gaineko zerga

	2002	Igoera	2003
<b>&lt; 9 zaldi fiskal</b>	30,50 €	%4,00	<b>31,70 € / 5.274 pta</b>
<b>9 - 11,99 zaldi fiskal</b>	61,00 €	%4,00	<b>63,45 € / 10.557 pta</b>
<b>12 - 13,99 zaldi fiskal</b>	101,65 €	%4,00	<b>105,70 € / 17.587 pta</b>
<b>14 - 15,99 zaldi fiskal</b>	142,30 €	%4,00	<b>148,00 € / 24.625 pta</b>
<b>16 - 19,99 zaldi fiskal</b>	182,95 €	%4,00	<b>190,30 € / 31.663 pta</b>
<b>&gt; 20 zaldi fiskal</b>	223,60 €	%4,00	<b>232,60 € / 38.701 pta</b>

## Domu Santu Eguna izango da bihar

EDU MENDIBIL

Bihar, azaroak 1, Domu Santu Eguna izango da. Ohikoa denez, herritar asko hurbilduko dira Matxiategiko kanposantura, hildakoak gurtzera. 08:00etatik 19:00etara egongo da zabalik kanposantua. Luisi Domínguez ehorzleak dioskunez, "urtero ehunka lagun etortzen dira hildakoei loreak eta ekartzera, eta aurreko egunetan ere jende dezent ibiltzen da. Egunotan hostoak kentzen bakarrik nahikoa lan izaten dugu". Gaur egun, Angel De Benito ari da Luisirekin bate-

ra kanposantuan lanean. Luisi Domínguez duela 23 urte hasi zen ehorzle lanetan, aita zenaren ordez. Luisik azaldu digunez, "duela urte batzuk, kanposantua txiki geratu zitzaigun, baina azkenaldian tokia errekerperatzen ari gara, jendeak gero eta ohitura handiagoa duelako 10 urtera gorpuzkinak erretzeko. Aurten, esate baterako, 40 gorpuzkin eraman dituzte erretzera".

Matxiategiko kanposantua 1855. urtekoa da, eta errausteko labea jarri eta kapera eta gorpuztegia berritzeko asmoa dago duela bi urtetik.



Ehunka herritar hurbilduko dira bihar, egubakoitza, Matxiategiko kanposantura.



MONIKA BELASTEGI

Santa Marina ostean egin duten Oxirondo plaza eta Zurraderoko zubia lotzeko Kataibia kalea erabiliko dute.

**HIRIGINTZA/** Udalbatzak onartu du proiektua, eta Sozialista Abertzaleak ez daude ados

## Oxirondo plaza Zurraderoko zubiarekin lotuko dute

MONIKA BELASTEGI

Kataibia kalea urbanizatzeko proiektua onartu du udalbatzak. Helburua da Oxirondo plaza berria Zurraderoko zubiarekin lotzea, eta lotune lan hori egingo du Kataibia kaleak. Proiektua Santa Marina ingurua urbanizatzeko lanen barruko bigarren fasea da.

Proiektuaren oinarria horixe da, azken baten, Santa Marina elizaren ostean egin duten Oxirondo plaza Zurraderoko zubiarekin lotzea. Lotura Kataibia kaletik egingo dute, Deba ibaiaren kontra dagoen bidetxotik.

Oxirondo plaza eta Zurraderoko zubia lotzeko, Kataibia kalearen amaieran dauden bi etxolak bota egingo dituzte; izan ere, etxolek zubirainoko bidea moztu egingo dute. Hori horrela, bi etxolek nagusiekin harremanetan izan da Udala, eta Jesus Laskurain aparejadorearen esanetan,

Kataibian bertan beste bi etxola eraikiko dizkietela adostu dute jabeekin.

Plazaren eta zubiaren arteko lotura egiteko guztiz konponduko dute Kataibia kalea: batetik, elektrizitateko, estolderiako, eta abarreko instalazio berriak sartuko dituzte, eta, bestetik, zoladura botako dute.

Horrez gain, ibaiaren kontra harrizko hezitxoak egingo dute, Oxirondo plazan egin duten antzera baina altuera txikiagokoa, eta kalean barrena farolak ere jarriko dituzte. Bestalde, eskailerak egingo dituzte kaletik zubiraino.

*Kataibia kalea berrituko dute, eta horrek lotuko ditu Oxirondo plaza eta Zurraderoko zubia*

Proiektua onartzeaz gain, obrak egiteko baldintzak ere onartu zituzten osoko bilkuran, eta lehiaketa bidez esleitu dituzte. Lan guztiak egiteko aurrekontua 122.500 euro ingurukoa da.

### SOZIALISTA ABERTZALEAK, AURKA

Proiektu hori eta baldintzak osoko bilkuran onartu zituzten joan den astean, EAJ-EA eta PSE-EE alderdien oniritziarekin. Sozialista Abertzaleak taldeak, aldiz, aurka bozkatu zuen, hiru arrazoiengatik: batetik, ibaiaren kontra eraikiko duten heziarengatik, Oxirondo plazan egin berri duten hormaren jarraipena izango delako, eta, hala ere, itxuraz oso ezberdina; bestetik, Kataibian eraikiko duten horma hori ez delako zubiaren hankaraino iristen; eta, azkenik, etxolak bota eta berriro eraikitzearen aurka daude Sozialista Abertzaleak. Haien esanetan, beste modu bateko kalte-ordaina egon beharko litzateke; ez etxolak berriro eraikitzea.

## LABUR

### Gabonetako argiteriak 18.517 euroko aurrekontua izango du aurtengo Eguberrian

Udaleko Gobernu batzordeak herriko kaleak apaintzeko Gabonetako argiteriaren aurrekontua onartu berri du. Aurten, 18.517 euroko gastua egingo du Udalak Gabonetarako argiterian; iazko gastuaren oso antzekoa.

Horrez gain, noiz piztu eta itzaliko diren ere onartu dute. Piztu abenduaren 13an egingo dituzte, eta itzali, berriz, 2003ko urtarilaren 7an.

### 'Askatasunaren urratsa' iheslarien aldeko ibilaldia martitzenean pasatuko da herritik

Iheslarietako elkartasuna adierazteko ibilaldia datorren martitzenean, azaroaren 5ean, pasatuko da Bergaratik. Bihar, azaroak 1, abiatuko da Algortatik, eta hilaren 9ra bitartean Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldea zeharkatuko ditu, eta Baionan amaituko da.

Azaroaren 5ean helduko da Debagoienara, Elorriotik. 10:00etan, Arrasaten izango da, eta 10:30 aldera, Debagoieneko iheslarien senitartekoei omenaldia egingo diete Seber Altube plazan. Bukatu eta gero, Bergarantz etorriko da, eta ibilaldiaren auto-karabana herriko kaleetan ibiliko da, eta gero, Elgoibarrerako bidea hartuko du.



### Turismo Bulegoa zabalik hiru egunez

Domu Santu Eguna jai dela aprobetxatuta, zabaldu egingo dute Turismo Bulegoa. Egubakoitzetik domekara egongo da zabalik, honako ordutegiarekin: egubakoitzean eta domekan, 11:30etik 14:30era; eta zapatuan, 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era. Bestalde, bisitaldi gidatuak ere izango dira. Horrez gain, abenduaren 6tik 8ra ere zabalik egongo da.

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

## Bergarako Udala

Bergarako Udalak etxebizitza bat behar du Bergaran hirugarren adineko jendearentzat.


### Gutxieneko baldintzak:

- Igogailua.
- Bi bainugela edo bainugela bat eta komun bat.
- Kafefazioa.
- Hiru logela.
- Telefonoa.
- Aldapa ez badu hobeto.

Interesatuok, Udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako telefono honetara deitu:

943 77 91 65 (8:00etatik 14:00etara).





**UXUE RODRÍGUEZ**  
**'BETIZU'KO IZAR**



**U**xue Rodríguez 11 urteko neskatila bergararra ETB-1eko *Betizu* programan ari da parte hartzen. Saio horretako *Betizuzenean* izeneko sailean ikusi ahal izango dugu, abendura arte. Lagunek eta gurasoek animatuta, saioan parte hartzeko izena eman zuen Uxuek, eta *casting*-a gainditu ondoren, Unai Iparragirrek aurkezten duen saioan ari da. Musika lasaia atsegin duela esan digu, eta Alex Ubago eta La Oreja de Van Gogh ditu gustuko. Astero lurretan eta Miramonen egiten dituzte grabazioak, eta lehiaketako lau onenek, sari gisa, disko bat grabatzeko aukera izango dute. Urrezko Diskoa izatera iritsiko ote da Uxuerena? Zorte on!!!

**IÑIGO AIZPURUA**  
**'BASETXEA'TIK**  
**ETORRI BERRIA**

**I**tziar eta Angiozar artean bizi den Iñigo Aizpurua 21 urteko gazteak ETB-1eko *Basetxea* saioan hartu du parte. Egubakoitzean bertan etorri zen Etxalartik, hango etxe baten grabatu dute-eta saioa. Lehiakideekin eta saioko langileekin primeran moldatu dela eta esperientzia guztiz aberasgarria gertatu zaiola esan digu. Gogorra ere izan da grabazioa, zortzi kilo galdu ditu-eta Iñigok. Hala ere, ez digu argitu nahi izan finalera iritsi den edo ez: 13 lehiakidetatik hiru igaroko dira abenduko finalera, eta batek munduan zehar bidaiatzeko 18.000 euro eskuratuko ditu. Adi pantailari...



UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

**MUJIKA FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09



**POL-POL**  
**Taberna**

943 76 07 78. Bergara





JOSETXO MUNIATEGI

Aurtengo denboraldiko lehen garaipena lortzeko aukera paregabea galdu zuen Edu Orgazen taldeak.

ESKUBALOIA

## Senior mutilen taldeak Ereintzaren aurka berdindu zuen zapatuan

EDU MENDIBIL

Senior mutilen eskubaloia taldeak denboraldiko lehen puntua lortu zuen zapatuan, Labegaraietako kiroldegian Ereintzaren aurka berdinduta (24-24). Etxekoek eskura izan zuten garaipena.

Edu Orgaz senior taldeko entrenatzailearen iritziz, "partidua-ren aurretik berdinketa sinatuko genukeen, baina partidua jokatu eta gero puntu bat galdu dugula

uste dut. Lehen garaipena lortzeko aukera ezin hobe izan dugu". Atsedendian Bergarak bi goleko alde zuen (11-9), eta bigarren zatiaren hasieran bost goleko aldearekin ere aurretik izan ziren markagailuan etxekoak. Hala ere, ezin izan zioten aldeari eutsi, eta amaieran berdinketa lortu zuten errenteriarrek.

Bergararen aldetik jokalariek hauek irten ziren kantzara: Ekain Sotil, Jon Ugartetxea (gol bat), Aitor Aldanondo (2), Eugenio Cabo (1), Ruben Sánchez (6), Aitor

Sánchez (2), Ibai Goenaga (4), Joseba Intza (2), Asier Muxika, Jon Mendizabal, Mikel Agirrezabal, Gorka Astaburuaga, Iker Retolaza (5 gol) eta Lander Juaristi (1). Bergarak lau partidurik galdu eta berdinketa bakarra lortu du orain arte.

**GAZTE TALDEA, ETXEAN**

Eskubaloia partidurik bakarra izango da astebukaeran Bergaran. Mutilen gazte taldeak Legazpiaren aurka jokatu du bihar, egubakoitzan, kiroldegian, 12:00etan.

## Clementek futbolzale ugari batu zituen Gure Ametsan

E.M.

Ironiaz eta argitasunez, Javier Clementek futbolaren gainean jardun zuen aurreko egunean Gure Ametsa elkartearen. Bergaldiak ikusmina piztu zuen, eta futbolzale ugari batu zen San Antonioko elkartearen.

Bergara KEko presidente Iñaki San Josék aurkeztu zituen gonbidatuak. Juan Luis Mardaras Eibarko presidente ohia, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea eta Agustin Arantzabal *Gaztelu* izan ziren beste solaskideak Gure Ametsan, baina entrenatzaile bizkaitarrak bereganatu zuen protagonismo osoa.

Umoretsu, "liga hasieran Realzaleok zorioneko gaude", adierazi zuen, eta ia denboraldian Realari mesede handia

egin ziola gehitu zuen, "Teneriferekin Anoetan Realari irabazi genionean, Toshack bota zutelako". Entzuleen artean barreak piztu zituen Clementek hainbat unetan. *Gaztelu*-rekin ere txantxetan aritu zen, eta behingoz ostikorik ez emateko eskatu zion: "Futbolari ginenetik ezin dut gaintetik kendu, beti ostikoka ari zait".

Euskal Herriak duen biztanle kopurua kontuan izanda, lehen mailan lau talde izatea, beharbada, gehitxo dela esan zuen. Bestalde, Athleticen harrobiko jokalariekin lanean jarraitzeko zaleen eta komunikabideen aldetik pazientzia ezinbestekotzat jo zuen: "Harrobiko jokalariei emaitzak eskatzen zaie, eta lehen mailara egokitzeko denbora behar dute". Athleticen filosofiarekin bat egiten duela eta lehen mailako talderen bat entrenatzeko irrikaz dagoela ere adierazi zuen.



Mardaras, San José, Clemente, Gaztelu eta Larrea, eguneko berbaldian.

FOTOKIROLA



### Lehenengo eta oraingo ziklistak

Bergara KEren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, ziklismoaren gaineko mahai-ingurua izan zen aurreko egubakoitzean Miguel Altunan. Ziklista beterranoak eta gaur egun tropelean ari diren beste hainbat batu ziren bertan. Era berean, Bergara KEko zuzendaritzak Gurutz Arrieta eta Xabier Ilzarbe omendu zituen ekitaldiaren hasieran; hain zuzen ere, urtetan herriko ziklismoaren alde egin duten lan bikainagatik.

FUTBOLA

### Bost futbol partidurik jokatu dira egubakoitzean eta zapatuan Bergaran

Euskal Ligan ari den Bergara KEko gazte taldeak Asti Leku hartuko du egubakoitzean, Agorrosinen, 15:45ean. Alebin taldeak eta lehen kadeteak zapatu goizean jokatu dute Ipintzan, 9:30etik aurrera, eta zapatu arratsaldean beste bi partidurik izango dira Ipintzan: Bergara-Arrate (2. erregionala, 16:00etan) eta Bergara-Eibar-tarrak (2. mailako kadeteak, 18:00etan).

ATLETISMOA

### Behobia-Donostia herri lasterketarako izenematea azaroaren 2ra arte zabalik

Behobia-Donostia lasterketako aurtengo aldia datorren domekan, azaroaren 10ean, jokatu da. Parte hartzeko interesa dutenek Lazkano oinetako dendan egin dezakete izenematea, zapatura arte (azaroak 2). 18 urtetik beherakoek 15 euro ordaindu behar dituzte eta 18 urtetik gorakoek, berriz, 18 euro. Txipa itzultzen duten korrikalariei bost euro bueltatuko dizkijete.


**Babeslea**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



MONTIJOKO ABESBATZA

Montijoko Abesbatza 55 kidek osatzen dute gaur egun, eta zuzendaria Pedro Gutiérrez da.

San Pedron izango da, 20:00etan, eta Aritzetaekin egingo dute emanaldiaren azken zatia

## Montijoko Abesbatzaren emanaldia zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Montijoko Abesbatzak (Bada-joz) emanaldia egingo du zapatuan, San Pedro parrokian, 20:00etan. Aritzeta Abesbatzak gonbidatuta dator. Aritzeta kideak Montijon izan ziren orain dela bi urte, eta trukean gonbidatu dute Extremadurako taldea herrira.

Orain dela bi urteko Aste Santuan izan ziren Aritzeta Abesbatzako kideak Extremaduran. Montijon eta Meridan egin zituzten emanaldiak, eta Montijokoek eskainitako "harrera aparta eskertu eta itzultzeko gonbidatu ditugu Bergarara", Joxe Arrieta Aritzeta-tako presidentearen esanetan.

Bihar, egubakoitza, Bilbora iritsiko dira montijoarrak, eta hango aterpetxe baten hartuko dute ostatu. Gauean, dena dela, Arrasatera joango dira, eta Corazón de Encina Extremadurako elkartearen afalduko dute.

Zapatuan, Aritzeta hainbat kide joango zaizkie Bilbora, eta Donostia ezagutzera eramango dituzte. Eguerdian, Bergarara etorriko dira, eta Sagar-pe elkartean bazkaldu ondoren egingo dute emanaldia. Bazkarian, gainera, Montijoko eta Aritzeta abesbatzek eta Chulillako bandak elkarrekin bazkalduko dute.

### BAKARKA ETA ARIZETAREKIN

Montijoko Abesbatzak egingo duen egitarauak hiru atal izango

ditu: lehenengo atala Latinoamerikako folkloren oinarrituta dago. Besteak beste F. Vilaren, F. Cabedoren eta Joan Manuel Serraten doinuak abestuko dituzte. Bestalde, hitzak Federico Garcia Lorca eta Antonio Machado poetenak izango dira, beste batzuen artean. Guztira, sei lan abestuko dituzte.

Bigarren atala Extremadurako eta Andaluziako folkloren oinarrituko dute. Sei kantu eskainiko dituzte: *El pájaro ya voló* eta *Zorongo*, esaterako.

Hirugarren eta azken atalari dagokionez, bi lan jokatuko dituzte: Haendel-en *Canticorum Iubilo* eta *Agur Jaunak*. Azken atal hori Aritzeta Abesbatzarekin batera egingo dute.



### Karlistadak hizpide azaroaren 5ean

Udal Agiritegiak antolatutako historaren gaineko hitzaldi sortako hirugarrena datorren martitzenean, azaroak 5, izango da, 19:30ean, Miguel Altuna insituan.

Hitzaldiaren gaia da *Dios, Patria, Rey. Por una explicación foral de las guerras carlistas*, eta hizlaria, berriz, Jose Maria Ortiz de Orruño izango da. Hizlariaren helburua da karlistaden gaineko hainbat topiko atzera botatzea eta baita karlistadak ulertzeko hainbat giltza berritzaile ematea ere. /M.B.

## Chulillako (Valentzia) bandak emanaldia egingo du zapatuan

MONIKA BELASTEGI

Chulilla herriko (Valentzia) La Lira musika bandak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 12:30ean.

Ibilbide luzea du musika bandak: 1922. urtean, La Lira Musika Elkarteak eratu zuten, Chulillan, eta bost urte geroago, La Lira banda eratu zuten elkartearen baitan. Sorrera urte hartan, 35 kide zituen bandak eta 165 bazkide elkartek. Gaur egun, berriz, 48 musikari ditu bandak, 200 bazkide elkartek eta, horrez gain, 42 ikasle dituen musika eskola bat ere bai. Bandaren zuzendariari

dagokionez, Jose Luis Civerak du gaur egun ardura hori.

### SEI LANEZ OSATUTAKO EGITARAUA

Bi zati izango ditu emanaldiak, eta bakoitzean hiru obra egingo dituzte. Lehenengo atalean honako hauek joko ditu La Lira bandak: Pascual Marquinaren *Cielo Andaluz* pasodoblea; J. Serranoren *La Dolorosa* zartzuela aukeraketa eta Gerónimo Gimenezen *La Torre del Oro*.

Bigarren atalean beste hiru lan egingo ditu: Pascual Pérezen *Pepita Greus* pasodoblea; M. Boekel-en *Spirit of life* eta Johan de Meij-en *El Señor de los Anillos*.



LUIS GUTIERREZ

Aurrez ere egon izan da Chulillako banda herrian. Irudian, 1990ean eginiko bisita.

## KULTURAPILULAK

### Pol-Pol argazki taldeak antolatutako Argazki ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Pol-Pol argazki taldeak Argazki ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 11n, 12an, 13an, 18an, 19an, 20an, 25ean, 26an eta 27an izango da, 19:15etik 21:15era, taldeak Zabalotegi 5ean duen egoitzan. Ikastaroan landuko diren gaiak honakoak dira: *Zure makina*, *Diafragma*, *Obturadorea*, *Objektiboak*, *Argia*, *Argi-neurketa*, *Flasha*, *Filtroak*, *Hurbiltze-argazkiak* eta *Konposizioa*.

Izena emateko epea zabalik dago eta, gehienez, 20 laguneko taldea osatuko dute. Prezioa 40 euro da, eta ikasleendako eta langabeendako, 30 euro. Izena emateko kultura etxera jo beharko da. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 30 90 telefonora (Benito).



### Gaur irekiko dute UNEDek antolatutako Pintura Lehiaketako lanen erakusketa

Gaur, eguna, zabaldu eta azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai UNED zentroak antolatutako Pintura Lehiaketako margolanen erakusketa. Kultura etxean dago ikusgai, honako orduetara: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara, eta zapatuetan eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### Electricriders, Riverside Speedway eta Los Callahans taldeak bihar, gaztetxean

Iruñeko Electricriders, Bartzelonako Riverside Speedway eta Gironako Los Callahans musika taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, egubakoitza, Bergarako gaztetxean. Musika emanaldia 22:30ean hasiko da.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

Zein da XVI. mendeko ate landua duen etxe honen izena?

GALDEDEBALDE

1.

Udaleko zergak onartu berri dituzte. Ze ingoera izango du urak 2003 urtean?

- A/ %4.
- B/ %8, 34.
- C/ %11,67.

2.


Chulillako bandak emanaldia egingo du zapatuan Bergaran. Zein da bandako zuzendaria?

- A/ Jose Luis Cuerda.
- B/ Jose Luis Civera.
- C/ Juan Luis Mardaras.

3.

Senior mutilen eskubaloi taldearen azken partiduan zein izan zen golegilerik nagusiena?

- A/ Aitor Aldanondo.
- B/ Ruben Sánchez.
- C/ Jon Ugartetxea.



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

LOLI ETXEBERRIArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Loli! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Ezkerrekoa Ondartza etxean eta eskumakoa Errotalde jauregian/ Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-C.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Campo Viejo ardoa

Gorria edo beltza. 75 cl.ko botila

2,90€

483 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



PINTOREBERGARARRAKGAUR


Rikardo Azkargorta

EDU MENDIBIL

Formazioz margolari autodidakta dela dio Rikardo Azkargortak (Bergara, 1958): "Gure aita zena margolaria zen, eta hura pintatzen ikustean piztu zitzaidan zaletasuna. Sekula ez dut eskolarik hartu, nire kasa ikasi dut". Pintura eskolara ematen dizkio helduen talde bati, eta margotzeko obserbazio ahalmena izatea beharrezkotzat jotzen du. Elementu figuratiboak zituen pintura geometrikoa landu izan du orain arte: "Azkenaldian, berriz, paisaia modu errealistagoan tratatzen dut eta hasiera baten garrantzi handirik ez duten gauzak islatzen ditut orain, ibaiak, kanalak edo zubiak, esaterako. Betiere, saiatzen naiz margotzen dudaren eta pentsatzen dudaren artean erlazioa izaten". Besteak beste, Japonian, Maltan edo Argentinan erakutsi du lana.

Bere burua pintura jeneroarekin identifikatzen du eta ikusleek bere margolanetan zerbait erakargarria topatzea nahi du: "Errealismoa jendea harrapatzeko tresna izan daiteke, gantxo bat. Eta baliabideak eta estilo ezberdinak baino gehiago, kontatu nahi dena da inportanteena".

*"Baliabideak eta estilo ezberdinak baino gehiago, kontatu nahi dena da inportanteena"*



E.M.



SEGUROS LAGUN ARO  
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:

9.00-14.00 eta 15.30-19.30



IRAEGI  
ASEGURUAK

ETXAGI  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12



BERGARA  
**Nora Etxarri**  
Azaroaren 4an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Mikel Rodriguez**  
Azaroaren 4an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Jon Azkarate**  
Azaroaren 1ean 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak; batez ere, Olatz.



BERGARA  
**Alazne Etxabarri**  
Azaroaren 4an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Irene Ramos**  
Azaroaren 3an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ane Mujika**  
Azaroaren 5ean 5 urte.  
Zorionak! Etxekoak,  
lagunak eta Alazne.



BERGARA  
**Itsaso Gantxegi**  
Azaroaren 7an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Itsaso Alberdi**  
Azaroaren 4an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



ELGETA  
**Eñaut Arantzeta**  
Urriaren 28an 25 urte.  
Zorionak potxolo!  
Hire koadrila.



BERGARA  
**Aitziber Yera**  
Azaroaren 3an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Unai eta etxekoak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

**Elgeta:** Erosle-Baltxongua



BERGARA  
**Irati Ugarte**  
Azaroaren 6an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Iker Mellado**  
Azaroaren 6an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Jokin.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61  
BERGARA

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

**IKUSBI**

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5  
BERGARA  
943 76 53 09

*izeder*

**ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak**

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA

ZAHARREN ETXETIK

# Antolatzaileak, pozik, amaitu berri den Erretiratuen Kultur Hamabostaldiarekin

EDU MENDIBIL

Zapatuan, Kultur Hamabostaldiaren amaiera ekitaldia egin zuten. San Joxepeko erretiratuak oso pozik azaldu dira Hamabostaldiak izan duen harrerarekin.

Zapatu eguerdian, besteak beste, Mireia Unamuno Antzuolako alkatea, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea eta Tomasa Zabaleta eta Jose Mari Ugalde Bergarako eta Antzuolako erretiratuen ordezkariak izan ziren Miguel Altunako aretoko ekitaldian. Herritar ugari bildu zen hantxe. San Joxepeko presidente Tomasa Zabaletak adierazi digunez, "balorazio sakonagoa egiteko aukera izango dugu oraindik, baina pozik egoteko arrazoiak baditugu: maila bikaineko hizlariak izan ditugu aurten eta jendeak primeran erantzun du. Batez beste, 120 lagun etorri izan dira berbaldietara, eta aurtengo gaia, osasun integrala, interes

handikoa izan da. Berbaldiez gain, gainerako ekitaldiak ere arrakastatsuak gertatu dira".

Zapatuan, 90 lagun inguru bildu ziren Hamabostaldia agurtzeko Zabalotegin egindako herri bazkarian. Iñaki Quintanillak alaitu zuen bazkalostea, eta umore ona izan zen nagusi.

### IKASLE SARITUAK

Bestalde, egubakoitzean, erretiratuek deitutako Idazlan Lehiaketako sari banaketa egin zuten Novedadesen. Guztira, 80 aurkeztu ziren lehiaketara. Lehen Hezkuntzako artean, Ander Iturbe, Xabier Aranzeta eta Julian Ramírez de Okariz (*Pelotari ertzzailea* lanarekin) eta Amaia Azpeitia (*Mateo, jubilatutako kirolaria*) izan ziren irabazleak, eta Bigarren Hezkuntzako mailan, Garazi Arantzabalek eta Oihana Aldabalek (*Osasuna*) eta Raisa Maniegak (*Bizi ohitura osasungarriak*) jaso zuten saria.

Sari banaketaren ostean, Barruti mago bergararrak txundituta utzi zituen ikusleak.




Aretoa jendez gainezka zela, Hamabostaldian izan diren hizlariak 'Osasun integrala' aztertu zuten egueneko mahai-inguruan.



MIGURA

Zapatuan Zabalotegin egindako herri bazkarian 90 lagun inguru bildu ziren.



E.M.

Argazkian, Idazlan Lehiaketan saritutako ikasleak.

## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



### INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefono Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

# Kontuola

ANTZUOLA / Eguena / 2002ko urriaren 31 / 132. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Sagastiko etxebizitzak azaroaren 16an zozkatzeko asmoa dauka Udalak

AINTZANE IRIZAR


Aurreko asteko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak Antzuola Udal Etxegintzako etxebizitzaren erosle izango direnen behin-behineko zerrenda. Udaletxean dago zerrenda hori, eta azaroaren 11ra arte egongo da zabalik alegazioak aurkezteko epea.

Hamasei etxebizitza egingo ditu Antzuola Udal Etxegintzak Sagastin. Etxebizitza horietako bat erosteko 63 lagunek eman zuten izena, eta dagoeneko argitara eman dute aukeratutako behin-behineko zerrenda.

Orain, azaroaren 11ra arte dago alegazioak aurkezteko aukera. Udaleko arduradunen asmoa da azaroaren 16an egitea etxebizitzaren zozketa.

### 63 LAGUN, 16 ETXEBIZITZA

Esan bezala, 63 lagunek eman zuten izena egingo dituzten 16 etxebizitzetarako. Eskaera horiek guztiak aztertu eta baloratu egin behar izan dituzte Suradesako teknikari batek, udal aparejadoreak, Udaleko idazkariak eta gizarte langileak. Balorazio hori egiteko baldintza pleguetan oina-



AINTZANE IRIZAR

Duela gutxi hasi dira hirugarren etxebizitza multzoa eraikitze lanekin.

rritu dira, eta egindako balorazioaren txostena aurkeztu zioten udalbatzarrari.

Behin alegazio guztiak aztertuta, behin betiko zerrenda onartuko du Udalak azaroaren 11ko astean.

### ETXEBIZITZEN ZOZKETA

Esan bezala, azaroaren 16an egin nahi du Udalak zozketa. Etxebizitza guztiak ez dira berdinak izango, hiruzpalau motatakoak izango dira, prezioaren arabera. Erosle bakoitzak lehenetsunaren

arabera aukeratu ditu etxebizitza motak, eta azaroaren 16ko zozketan erabakiko da bakoitzari zein etxebizitza tokatuko zaion. Eta, azkenik, esan beharra dago hasi direla dagoeneko etxebizitza multzoa eraikitzen.



### Argazkirik onenak, sarituak

Aurreko astean esan genizuen, Josu Errastirendako, Nagore Igartzarendako eta Maite Telleriarendako izan dira Argazki Lehiaketako sariak. Bergarako Kiñu argazki dendako Juanje Amasorrainek eta Antzuolako Juan Kruz dendako Mari Pazek osatu zuten epaimahaia. Asteburuan, hilaren 26an eta 27an, lehiaketara aurkeztutako argazki guztien erakusketa egon zen ikusgai Olanan etxean. Alboan, Josu Errastiren *Mamuak* izeneko argazkia./A.I.

## LABUR

### EHNA agiriak iritsi ziren, baina akastunak ziren

Aurreko astean esan genizuen moduan, iritsi ziren Euskal Herriko Naziotasun Aitorpenaren agiriak; heldu bezain pronto, baina, dei bat jaso zuten Udalbiltzatik, agiriok akats bat zutela adieraziz. Eta agiri berriak ahal bezain laster egingo dituztela adierazi zuten Udalbiltzatik.

### Kaxianoren eta Simonen argazkiak batzen ari dira

Azaroaren 22an Santa Zezilia eguna dela-eta, omenaldia egingo diete Simoni eta Kaxianori. Besteak beste, argazki erakusketa jarriko dute Olanen. Erakusketa horretarako, Simonen edo Kaxianoren argazkirik izanez gero, udaletxera eramatea eskatu diete herritarrei.

### Igogailua jartzeko lanak esleitu ditu Udalak

Anbulatorioan igogailua jartzeko lanak Mugerza SA enpresari esleitu zizkion Udalak aurreko astean egindako osoko bilkuran. Horrela, aurrera doaz pixkanaka ambulatorioko berritze lanak. Behin igogailua jarrita, fatxada txukuntzea eta komun berriak egitea geratuko da.

### Jende ugari parte hartu zuen Elkartasun Festan

Zapatu arratsaldean Zurrategin ospatutako Anelkarren Elkartasun Festan jende ugari parte hartu zuen, eta denera 810 euro batu zituzten Senegalgo Oussouye herrirako. Batutako diru hori aurreko irailean itsasontzi-istripuan senitartekoak galdu zituzten familiei laguntzeko erabiliko du Anelkar elkarteak.



## Tortilla dotoreak egin zituzten

Joan den zapatu arratsaldean jokatu zuten herriko plazan gaztetxoendako Patata Tortilla Lehiaketa. Zortzi taldek parte hartu zuten lehiaketan; bosgarren eta seigarren mailakoen artean, honako hauek irabazi zuten: Gorka Etxezarretak, Ander Aranak, Markel Letek eta Jon Iturbek. DBHko lehen eta bigarren mailakoen artean, berriz, honako talde honek jaso zuen lehen saria: Itsaso Zabalok, Ikerne Rodríguezek, Maialen Guriidik eta Jone Rodríguezek osatutako taldeak, hain zuzen. /A.I.

## KULTURA

# Antzuolarrek irabazi zuten Lehen Hezkuntzako Idazlan Lehiaketa


AINZANE IRIZAR

Ander Iturbe, Xabier Arantzeta eta Julian Ramírez de Okariz antzuolarrek irabazi zuten erretiratuen elkarteek antolatutako Lehen Hezkuntzako Idazlan Lehiaketa. 'Pelotari erretzailea' izeneko lanarekin irabazi zuen lehiaketa Antzuolako hirukote horrek.

Antzuolako eta Bergarako erretiratuen elkarteek antolatutako Hamabostaldi Kulturalaren barruan, Idazlan Lehiaketa antolatu zuten bi herrietako gaztetxoendako. Idazlanen gaiak ohitura osasuntsuen gainekoa izan behar zuten.

Ander Iturbek, Xabier Arantzeta eta Julian Ramírez de Okarizek, pilotari erretzaile baten gaineko idazlanarekin, lehen saria eskuratu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleen mailan.

Joan den egubakoitz arratsaldean, hilaren 25ean, egin zuten sari banaketa ekitaldia Bergarako Novedades aretoan, eta hantxe jaso zuten saria mutiko antzuolarrek.



Ander Iturbe, Julian Ramirez de Okariz eta Xabier Arantzeta.

### AZKEN EKITALDIA

Aurreko egubakoitzekoa izan zen aurtengo Hamabostaldi Kulturalako azkeneko ekitaldia, eta

hantxe izan zen Bergarako Barruti magoa, hainbat magia joko egiten, han bildutako gozamenarako.

EDU MENDIBIL

## ATREBENTZIAEZPADA/ Umiak zaintzeko zerbitzurik bihar da herrixan?



**MARITXU MONDRAGÓN**  
70 urte

Bai, uste dot herrixan badarela horrelako premiñak. Geurian be ondo etorriko litzake; gaur egun, izan be, gurasuek bixek lan egitten dabe.



**ANA JOSE MAULEON**  
33 urte

Nik uste dot baietz; etxetik kanpora lan egitten dogunori oso ondo etorriko litzakigu holako zerbitzu bat eukitzia herrixan bertan.




**GORETTI IGARTZA**  
33 urte

Bai, etxetik kanpo lan egitten daben jendiari oso ondo etorriko litzakio; haurtzaindegixa eta zaintzako zerbitzua, bixak be ondo etorriko lirake.



**RITXAR CUEVAS**  
30 urte

Lehenengo, umien heziketia zein arduria dan ikusi biharko dabe gurasuek. Dana dala, nik neuk ez daukat umerik, hortaz...



**KOLDO MADARIAGA**  
69 urte

Bai; bai hemen eta bai edozein tokittan. Gaur egunian, guraso askok bixek lan egitten dabe etxetik kanpora, eta ondo etorriko litzake.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Azaroak 1  
Antzuola-Aretxabaleta (Gazteak)

#### PILOTA

Azaroak 1 (Gipuzkoako Kluben Arteko Txapleketa)  
11:00: Olalde-Altzatarak

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Antzuola 2 Bergara 3 (2. erreg.)  
Eibartarrak 2 Antzuola 0 (Gazteak)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Hernani-Olalde (eskuz gazteak). 11-22  
Goierri-Olalde (eskuz nag.). . . . 22-12



**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



*Juan Cruz*

### ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak

### BITXITEGIA

Marrokineria  
Erlojuak, Bitxiak  
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Eguena / 2002ko urriaren 31 / 116. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Antzerkia izango da nagusi oraingo asteburuan Espaloian

OXEL EROSTARBE

Kultura batzordeak antolatuta, Markeliñeren bi antzezlan ikusteko aukera izango dugu asteburuan. Bihar, barikua, nagusiendako 'Punto.Rabo' antzezlan izango da, gerturazten direnek barre egiteko modukoa. Zapatuan, 'Kartoi biraka' antzezlan izango da.

Azken hilabeteotan Espaloian egin izan dituzte zenbait entsegu Markeliñe antzerki taldekoek. Kultura batzordearen eta antzerki taldearen artean dagoen harreman onak bideratu du oraingo asteburuan antzerki jardunaldiak egiteko aukera.

Antzezlanak ikusteko sarrerarik erosi ez duzuenok egunean bertan Espaloian izango duzue aukera. Bihar, barikua, 22:30ean, izango den *Punto.Rabo* antzezlan ikusteko sarrerak bost euro balio du eta zapatuan, 18:00etan, izango den *Kartoi biraka* antzezlanerako sarrerak, berriz, bi euro. Markeliñeren antzezlan guztietan bezala, hitzak baino gehiago, espresioa eta ironia izango dira nagusi bi antzezlan horietan ere.

### BIHAR GAUEAN, 'PUNTO.RABO'

*Punto.Rabo* komedia transzendetala da. Elizako hierarkiek *linbo* eta *purgatorio* bezalako kontzeptuak ezabatu dituztenean, Markeliñek kontzeptu horien gaineko egoera misteriotsuak azalduko dituen lana aurkeztuko du Elgetan. Arimekin zer gertatzen den, nork batzen dituen, nork epaitzen dituen... eta beste hainbat galdera erantzungo dituzte antzezlan horretan.


*Punto.Rabo* ongiaren eta gaizkiaren artean kokatzen da, zeruaren eta infernuaren artean. *Punto* biribil bat da, uztai bat, aura bat, santutasuna, finean. *Rabo*, berriz, buztana da, isatsa, zakila, bekatua adierazten du.

Bi pertsonaia elkartuko dira linboan, zeruaren eta infernuaren arteko tartean. Egoera horren inguruan denok dauzkagu aurreiritziak, eta aurreiritzi horiei buelta ematen saiatuko dira Markeliñekoak. Barrer egiteko aukera paregabea eskainiko digute.



Zeruaren eta infernuaren artean kokatzen da Markeliñek zapatuan Elgetan aurkeztuko duen antzezlan.

## Umeendako, 'Kartoi biraka' antzezlan



80 kaxatan munduari bira emango diote umeek.

Umeek ere izango dute zer ikusi oraingo asteburuan; izan ere, etzi, zapatua, *Kartoi biraka* antzezlan izango da, 18:30ean.

Sari ugari irabazitakoa da Markeliñek 1998an aurkeztu zuen antzezlan. Besteak beste, 2000ko Max sarietan Umeendako Antzezlan Onenaren saria eta FETENen Ikuskizun Onenaren saria jasoak ditu *Kartoi biraka* antzezlanak.

Magia eta sorpresa dira nagusi Markeliñeren antzezlan horretan. Jolas egiteko garaia dela ohartaraziko dituzte bertan batuko diren umeek. Kaxaz betetako biltegi baten gertatzen da historia. Kaxez baliatuz amets eta bidaia ikaragarriak egingo dituzte antzezlaneko protagonista diren hiru aktoreek. Biltegitik irten barik, globoan, itsasontzian edo gameluan munduari bira emango diote 80 kaxatan, *Phileas Fogg*-en bidaiaren antzera.

Sei eta hamabi urte arteko umeek dago zuzenduta antzezlan. Markeliñeren lan guztietan bezala, irudia eta soinua dira nagusi. Antzezlan mutua den arren, esan nahi dena erraz ulertuko dute umeek.

### LABUR

#### Udala, emakumeek jasaten dituzten erasoen aurka

Azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eguna dela-eta, Emakunde egin duen *Euskal udalerririk emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka* adierazpenarekin bat egingo du Elgetako Udalak.


Indarkeria horri aurre egitera deitu nahi ditu udalak. Atxikimendua agertzeaz gain, azaroaren 25ean, lazo zuria ipiniko dute balkoian.

Elgetan ere gertatzen dira emakumeen aurkako tratatu txarrak. Aurreko astean bertan, senarra salatu zuen Elgetan bizi den emakume batek.

#### Pello Añorgaren ipuin kontaketa azaroaren 7an

Umeen eta gazteen artean irakurzaletasuna suspertzeko kanpainaren barruan, Pello Añorga ipuin kontalaria izango da kultura etxean azaroan 7an. Eskola orduetan izango da ipuin kontakizuna, eta bertan herriko eskolako neska mutikoei hartuko dute parte. Pello Añorga sarritan egon izan da lehenago ere Elgetan. Datorren egueneko saioan zenbait ipuinen kontakizuna egingo du, eta umeek irakatsiko die liburuetan historia politak aurki daitezkeela.

Irakurzaletasuna suspertzeko kanpainaren barruan, Hiruki taldea ere izango dugu bisitari. Laster zehaztuko dute etorriko den eguna.



Pello Añorga Elgetan izango da.



JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Abixadia gelditzen

Goizeko bederatzirak jotiar, Pesako autobusa, egunero moduan, berandu. Umiak eskolara, gehixenak zebraibidian illaran. Batek erabaki dau bide motzena egittia, azken pausuak asfaltuan emoteko zorixan izan da. Automobilla bizkor zetorren, gaurkuan be. Mutikua zuri geratu da. Badaki bide luziena egin bihar leukela. Mutikua da... Astebetera bide motzetik doia barru. Mutikua da...

Automobillak abixadan igarotzen dira gure herri-ttik. Diputaziñuak ordainduko dittuan semaforuak eta glorietak jartzen doia Udala urte betian. Udalan gastuak zehazten dittuan aillegaeraztasun proiektua esku artian dake hillabedian eta herritarrok zerbaitegittian zain. Bide motza luze egiten dihardu Udalak.

Espaloia Kafe Antzokiak hartu leiken abixadia be gelditzen dihardue, galdera asko dittue erantzuteko. Espaloia danon artian bultzatu bihar giñuke, herrixak merezi daban kultura eskaintzia emoteko diru iturri eta azpiegitura garrantzitsua izango da-eta. Kultura batzordekuek, antzerki pasara edarra antolatu dabe astebururako. Zorionak. Aretua egokittuta egonda beladia perfektua izango litzake.

KIROLA

Hasi dira KZGunea jartzeko egin behar diren konponketak egiten


O.E.

Azaroaren 11n zabalduko dute Elgetako KZGunea. Aste honetan hasi dira kultura etxeko erakusketa gelan KZGunea jartzeko behar diren konponketak egiten. Oraingoan, telefono haria eta ordenagailuek behar dituzten Internetarako sarrerek ipintzen ari dira. KZGunean izango diren bederatzi ordenagailuak ere hantxe daude dagoeneko. Datorren astean ipiniño dituzte martxan.

IKASTAROAK DUAN IZANGO DIRA

Hemezortzi urtetik gorakoendako daude zuzenduak KZGunean emango diren ikastaroak. Interneten nabigatzeko oinarriko pausoak irakatsiko dituzte. Ikastaro guztiak doan izango dira, eta KZGunea zabaldu bitartean, udaletxean eman beharko dute izena parte hartu nahi dutenek.

Azaroan ikastaroak goizez izango dira: 09:00etatik 11:00etara ikastaroa izango da eta 11:00etatik 13:00etara nabigatzeko egongo da zabalik KZGunea. Abenduan, berriz, arratsaldean emango ditu zerbitzu horiek KZGuneak.



Kultura etxeko erakusketa gela KZGunea jartzeko prestatzen jardun dute astean.

O.E.

IRAKURLIAREN TXOKUA


IRAILAREN 14TIK URRIAREN 20RA

Azken urteetan, bai hauteskundeetan, bai Alderdi Egunean, PNVk sarri erabili duen esaldia da "Hitzetatik ekintzetara".

Gaurko egoerari begiratu esaldi horrek zer pentsatu ematen du. Batetik "hitzak"; Ibarretxeren Plana, hiru probintzietako estatutuaren luzapena negoziatzeko edo Garzonen autoen aurka egindako hitzak eta kereilak. Baina ekintzak ez datoz bat hitzekin, Garzonen aginduak zintzo betetzen dituzte, Batasunaren egoitzak itxi eta manifestazioak debekatuz. Adierazgarria manifestazioekin, PNVren esku dagoen Ertzaintzak, daukan jarrera. Irailaren 14an sektore desberdinek, "Gora Euskal Herria" lelopean, deialdia egin zuten Bilbora eta Ertzainak herritarren aurrean jarri ziren Garzonen debekua betetzeko.

Urriaren 20an Falangeak deituta, Bilbon ere, "Vascongadas siempre España" lelopean, bildu ziren Espainiatik sei autobusetan etorritakoak, Ertzainen babes osoarekin, Faxisten aurka zeudenei egurra emanez. Baina Euskal Herriak ekintza hauek agudo ahazten dira eta berriro betiko hitz politekin, herritarrek asetzen dira, beti gero etorriko diren irtenbide magikoak eskainiz. Badira hitzetan eta ekintzetan edozein abertzalerentzako oinarriak direnak. Estatuei, Euskal Herria badela, onar dezatela eskatzea, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoako herritarrek izango dutela hitza bere etorkizuna erabakitzeke, hau da, autodeterminazio eskubidea.

SEBAS ARANZABAL



Odol emailiek ez zeben hutsik egin

Elgetara odola batzera etortzen diran guztietan moduan, martitzenian be herritar ugari inguratu ziran Elgetako udaletxera, odola emateko asmuakin. Batutako odol kopurua eta bertaratu zanjentia dezente izan zanez, pozik zeren Elgetako Odol Emaillien Elkartekuek.

Lau hillabete barru, otsailaldian etorriko dira barru be odola batzera. Hurrengo aldixetan be odola emotera juatera animatu nahi dittue herritarrek Elgetako Odol Emaillien Elkartekuek./O.E.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



Jesus Mari Montiel ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK

Artekale 3

Mo: 656783299 Eibar

Tel: 943 70-07 19

KONPONKETAK SUKALDE ETA BAINUGELETAN



BOLINAGA METALAK

SALBADOR 7  
ELGETA 20690  
GIPUZKOA  
TEL: 943 76 80 64  
FAX: 943 76 83 01

## ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

## Herri eskolako irakasleak parrokoarekin

**D**uela 52 bat urte ateratako argazkia dakarkizuegu oraingo astean. Eskola aurrean aterata dago argazkia, eta orduko hainbat irakasle ikus ditzakegu bertan.

Purita Zabalok laga zigun argazkia, eta ondo ezagutzen zituen argazkiko guztiak. Izan ere, herriko hainbat eta hainbat umeren irakasleak izan ziren urte askoan, eta ez dira erraz ahazten garai haietako kontuak.

Zuetako askok ere, seguruenan, ezagutuko zenituzten dagoeneko irakasleok eta abadea. Hona hemen, ezkerretik eskumara, argazkian azaltzen direnak: Antonio Zubieta, Mari Zugasti andereñoa, Leandro Igartua parrokoa, Carmen Rodríguez andrea eta On Satur. Antonio Zubieta irakaslea nafarra zen. Parrokoa, berriz, Leandro Igartua, oñatiarra, Carmen andrea, bilbotarra, eta On Satur, arabarra.

Argazkia: Purita Zabalo



## ADI IRAKURLE!

<Ninguno>Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ANTZUOLA

## Herri Ikastetxea

**G**oiko erretratu zaharrean ere ikus daiteke hainbat aldaketa izan dituela Herri Ikastetxeak. Hemen dakarkizuegun argazkia, baina, goikoa baino zaharragoa da, 1916 ingurukoa. Garai hartan, albiste izan zen ikastetxea: alde batetik, berria eraiki zutelako, eta, bestetik, Ministerioak erreforma egin, eta sei urte eta hamabi urte arteko umeak eskolara joatera behartu zituelako.



≈ 1916

Orduko argazkia ikusita, segituan antze-man genezake irudikoa herriko ikastetxea dela, baina aldaketa ugari izan ditu.



2002

Eraikinaren egituran antz handia dute ordukoak eta gaur egungoak, baina, era berean, aldaketa handia izan duela ikus dezakegu.



# Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

# CAMACHO

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

# GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

PINTXO eta BOKADILOK  
SEKULAKO MARTXA!!


# EUXEBIO II

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

# Hartu aterkina

Azaroan, Agirre jantzi dendan egindako erosketek **oparia** daukate: aterkina.

Zatoz Bidekurutzeta 18ra!



## Pack Gaztea

95€

eta Pack  
bakoitzarekin  
buruko hau  
opari



Pack-a: lente kaxa bi + likidoak

**MULTIOPTICAS**

beti zurekin



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88



EIBAR  
Tel. 943 20 05 22



ERRETERIA  
Tel. 943 51 78 11



# Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

